

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EUSKO JAURLARITZA

#### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

##### Arabako Lurralde Ordezkaritza

#### **Megatech Industries Península Ibérica, SL enpresarako 2018ko soldataren berrikuspena**

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Megatech Industries Península Ibérica, SL enpresaren hitzarmen kolektiboko 2018ko soldaten behin betiko berrikuspena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01100731012017.

#### AURREKARIAK

2018ko otsailaren 22an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuen eta langileen ordezkariak 2018ko otsailaren 14ko negoziazio-mahaian sinatutakoa, 2018ko behin betiko soldata berrikuspenen kariaz.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 14a

*Arabako lurralde ordezkaria*  
**ÁLVARO IRADIER ROSA**

**Megatech Industries Peninsula Iberica SLU**

## 2017-2020 aldirako hitzarmeneko batzorde paritarioaren akta

Amurrion bildu dira, 2018ko otsailaren 14an, 11:00etan, enpresaren lokaletan, gai hauek aztertzeko:

## Gai-zerrenda

1. MIPIko lehen hitzarmeneko batzorde paritarioa eratzea.
2. 2018ko soldata-igoerak.
3. Askotarikoak.

1. Megatech Industrial Peninsula Iberica enpresako 2017-2020 aldirako lehen hitzarmeneko batzorde paritarioa eratzea (36. artikulua).

Batzorde paritarioa eratu da 36. artikuluan oinarrituta. Bertan honako hau dio:

Akordioaren sinatzaileek batzorde paritario bat izendatuko dute. Erakunde bakoitzak kide bat izango du batzordean, eta Zuzendaritzaren aldetik, ordezkaritza sindikalak dituen adina kide izango dira.

Batzordeak bi kide izango ditu gutxienez..

Batzordea osatzen duten alderdietako edozeinek deialdia eskatuz gero, batzordea hamabost egun igaro baino lehen bildu beharko da.

Hitzarmen kolektibo honetako edozein arau interpretatzea eta akordio honetan jasotako konpromisoak garatzea izango dira batzordearen eskumenak.

Batzorde paritarioa ordezkarietzako edozeinen herenak, gutxienez, eskatzen duen guztietan bilduko da, eman zaizkion eskumenak baliatuz.

Edozein kidek izan dezake ordezkaria, batzordeari alde aurretik jakinarazten badio.

Batzordean sortzen diren desadostasunak Lan Harremanen Kontseiluaren adiskidetzeko eta bitartekotza-prozedurei (PRECO) jarraituz ebaztuko dira.

Langileen ordezkaria BGP izango da, eta enpresako zuzendaritzarena JV.

2. 2018ko soldata-igoerak.

– Soldata-taulak.

Estatistikako Institutu Nazionalak joan den urtarrilaren 14an eman du aditzera 2017ko KPIa, eta gehikuntza ehuneko 1,10ekoa izan da. Enpresako lehen hitzarmenaren 4. artikuluan oinarrituta, gehikuntza hori 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera ordainduko da.

Soldata-taulen igoera honela izango da: 2017ko KPIa (ehuneko 1,10) gehi 2017ko taulen gaineko bermea (ehuneko 1,00). Hona hemen tauletako zenbatekoak:

LANBIDE-TALDEA	2017KO TAULAK	GEHIK. (EHUNEKOA)	2018KO TAULAK
1. taldea	17.888,71 euro	Ehuneko 2,10	18.264,37 euro
2. taldea	18.947,94 euro	Ehuneko 2,10	19.345,85 euro
3. taldea	19.955,82 euro	Ehuneko 2,10	20.374,89 euro
301. taldea	21.648,02 euro	Ehuneko 2,10	22.102,63 euro
4. taldea	22.284,81 euro	Ehuneko 2,10	22.752,79 euro
5. taldea	25.014,31 euro	Ehuneko 2,10	25.539,61 euro
6. taldea	28.816,84 euro	Ehuneko 2,10	29.421,99 euro
7. taldea	34.575,98 euro	Ehuneko 2,10	35.302,08 euro
8. taldea	43.444,83 euro	Ehuneko 2,10	44.357,17 euro

**5. artikulua. Borondatezko gehikuntza**

Ehuneko 1,10 igoko da (2017ko KPI erreala).

**6. artikulua. Hitzarmeneko plusa**

Ehuneko 1,10 igoko da (2017ko KPI erreala).

**7. artikulua. Txandakako lanaren plusa**

Lan egindako egun bakoitzeko 2,80 euro jasoko dira.

**9. artikulua. Nekagarritasun-plusa**

Eguneko 6,71 euroko zenbatekoari 2017ko KPI erreala (ehuneko 1,10 ) gehituko zaio. 2018an 6,78 euro jasoko dira lan egindako egun bakoitzeko.

**10. artikulua. Gaueko lanaren plusa**

Lan egindako egun bakoitzeko 17,75 euro jasoko dira.

**12. artikulua. Jantokiko laguntza**

Urteko 766,92 euroko zenbatekoari 2017ko KPI erreala (ehuneko 1,10) gehituko zaio. 2018an 64,61 euro jasoko dira hilean.

**17. artikulua. Lanaldia**

Urteko lanorduak 1.744 izango dira 2018an.

**19. artikulua. Kilometrajea**

Zenbatekoa, sinatutako hitzarmenaren arabera, industria kimikoko hitzarmeneko da; hitzarmen hori 2017ko abenduan azkendu zen. Horregatik adostu da KPIa adina igotzea (ehuneko 1,1) harik eta Industria Kimikoko Hitzarmen Orokorrean negoziatu arte. Hala, Industria Kimikoko Hitzarmen Orokorrean gorantz negoziatu zein beherantz negoziatu, ez da inolako erregularizaziorik egingo. Industria Kimikoko Hitzarmen Orokorra sinatzen denean, bertan adostutakoa aplikatuko da (gorantzkoa zein beherantzkoa).

**25. artikulua. Gabonetako otzara**

Gabonetako otzara dela-eta 62 euro jaso dira 2017an, eta 2017ko KPIa ehuneko 1,10ekoa izan da. 2018an jaso beharreko otzararen balioa 62,68 euro izango da.

Aztertzeko beste gairik egon ez denez, bilerari amaiera eman zaio goian adierazitako eguneko 11:30ean.